

Zementu zati bateko herritarra izan nahi?

NAZIOARTEKO URAK, 1942. Ejertzito britainiarrak Essexeko kostaldetik hamahiru kilometrorra dagoen hondarpe baten gainean HM Fort Roughs itsas gotorlekua jarri zuen. Bi dorreen gaineko plataformak 550 metro koadroko azalera besterik ez zuen, baina Bigarren Mundu Gerrak iraun bitartean itsas armadako 150 kideko taldeak okupatu zuen. 1956an utzi zuten plataforma azken soldaduek.



Roughs Tower itsas plataforma. Edo Sealandeko Printzerria.

1976ko irailaren 2an, armada britainiarreko komandante ohi Paddy Roy Bates-ek Roughs Tower plataforma hartu, bere burua Sealandeko printze izendatu eta zementu zatiaren subiranotasuna aldarrikatu zuen. Hurrengo urtean, britainiar itsas armadako ontzi bat "errege familia" Sealandetik botatzen saiatu zen, baina printzerriko biztanleek tiroz erantzuten zuten. Royren seme Charles -gaur egun Sealandako Charles I.a printzea- epaitegietara eraman zuten, baina auzia bertan behera utzi zuen Chelmsfordeko auzitegiak, eraso britainiar uretatik kanpo gertatu zela argudiatuz.

1978an, Bates kanpoan zela, Alexander G. Achenbach "lehen ministroak", seandar talde baten babesaz, gotorlekua indarrez hartu zuen. Batesek kontraerasoa prestatu zuen: helikoptero bat lortu, printzerria berreskuratu eta errebeldeak "gerrako presotzat" jo zituen. Gehienak gatazka amaitzean askatu zituzten, baina Gernot Pütz alemaniar abokatua traidoretzat jo eta preso atxiki zuten. Londresko enbaxadako alemaniar diplomatiko batek bitartekari lanak egin behar izan zituen Pütz askatzeko. Achenbachek eta haren jarraitzaileek erbestaldian Sealandeko legezko gobernuko kideak zirela aldarrikatzen jarraitu zuten arren, printzearen begietan hura beste garaipen

handi bat izan zen Sealandeko historia loriatsuan.

90eko hamarkadan, esperpentoa biribiltzeko, espainiar guardia zibil ohi bat sartu zen herrialde ñimiñoaren ibilbide labur eta mamitsuan. Francisco R.T.-k Sealandeko enbaxada muntatu zuen Madrilgo Serrano kale garestian, eta bere burua erregeorde izendatu. Laguntzaile talde bat osatu zuen, kargu diplomatikoak eman zizkien, beren autoei matrikula diplomatiko faltsuak jarri, benetako enbaxadetako festetan gonbidapenik gabe azaltzen zen... Eta milaka pasaporte saldu zituen 9.000 eta 55.000 dolar bitarteko prezioan, baita noblezia tituluak ere. 1997an, sarea desegin eta arduradunak atxilotu zituztenean, Sealandek 160.000 biztanle zituen, pasaporte kopuruan oinarrituta behintzat.

2007an printzerria salgai jarri zuten 750.000 milioi euroren truke, Espainiako Inmonaranja agentziaren bidez. Espainiar "enbaxadarekin" izandako eskarmentua ez zen nahiko izan, nonbait.

Erosleren bat azaldu bitartean, gaur egun, printzerriak noblezia tituluak eta hainbat merchandising produktu eskaintzen ditu plataformaren albo batean letra handiz iragartzen den www.sealandgov.org webgunean. ■



Arrastoak

la ezerezetik berregingo den egiptoar gurdia

2008AN Salima Ikram eta Andre Veldmeijer egiptologoen Antzinako Egiptoko Larrukingintza Proiektua (AELP) delako abiatu zuten, jarduera horretan egiptoarrek erabilitako teknologiak aztertzeko. Besteak beste, larruz estalitako gurdiak zituen aztergai proiektuak.

Gurdi arin horiek K.a. 1650. urte inguruan erabiltzen hasi ziren helburu militarrekin. Ondoren, gizakien eta salgaien garraiorako ere erabili ziren. Baina material organikoz eginak zeudenez ez da alerikgaurdaino gorde, eta horma-irudien nahiz erliebeen bidez soilik dugu haien berri.

Proiektuko kideek Kairoko Egiptoar Museoko biltegiatan zaldientzako larruzko uhaleri zatiak zeudela jakin zuten, baina materiala ikustera joan zirenean gurdi baten estaliaren 300 zati topatu zituzten. Orain, puzzlea osatzeko falta diren zatiak sortuz, egiptoar gurdi bat berregiten ari dira lehenengoz. ■



NATIONAL GEOGRAPHIC



Goian egiptoar gurdiak irudikatzen duen erliebea. Azpian, ikerlariak aurkitutako larru zatietako bat.